

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Antonio Zendoia Garmendia

*Donostia,
Gipuzkoa
(1931-2018)*

Aurkibidea



Biografia



Igeldoko Kamio baserrian jaioa. Aita-amak igeldotarrak zituen. Sei senidetan bigarrena da. Zazpi urte zituela ama hil zitzaion; aita berriz ezkondu zen, lau seme-alaba zituen alargun batekin. Igeldoko eskolara joan zen, baina ez asko, beti zegoelako zeregina baserrian. Lehenengo lana Ondarretako kartzela botatzen egin zuen. Basoan ere jardun zuen, eta Igeldoko harrobietan. 24 urterekin Igeldoko jolas parkean hasi zen lanean, eta hantxe ibili da erretiroa hartu arte. Bertsozalea da. Ezkonduta dago, eta bost seme-alaba ditu.

Zintak

DON-056

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-11-10
- **Iraupena:** 123 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Odria, Haizea

DON-063

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-11-19
- **Iraupena:** 107 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea

DON-153

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gallastegi, Maddi
- **Data:** 2013-05-01
- **Iraupena:** 55 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Kamio baserrian 14 lagun bizitzen

- **Erref:** DON-056/002
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:00:33. **Bukatu:** 00:03:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Kamio baserrian jaioa. Baserrian ganadua eta soroa zeukaten. Inguruko baserriak. Arreba geratu zen baserrian eta bera ondoan eraikitako etxean. Sei anai-arreba ziren. Kamio berriztuta dago orain, hiru zatitan banatua. Amona eta bi osaba bizi zen beraiekin. Zazpi urte zituela ama hil zitzaion; aita berriz ezkondu zen, lau seme-alaba zituen alargun batekin. Orduan 14 lagun elkartu ziren etxean.

2. Denek zeukaten goitizena

- **Erref:** DON-056/003
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:03:40. **Bukatu:** 00:05:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Aita zen Kamio baserrikoa; ama berriz Zingitakoa. Zingitan zeintzuk bizi ziren. Beste osaba bati 'Kanoia' deitzen zioten. Inguru hartan denek zeukaten goitizena. Berari 'Pottokilo' deitzen zioten etxean.</p>

3. 9 urterekin baserriko lanetan

- **Erref:** DON-056/004
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:05:30. **Bukatu:** 00:07:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

Ez zen eskolara asko joan, anaia zaharrena bai. Dotrina ikasi behar izaten zuten. Ikasten ez zuenari apaizak gerrikoarekin jotzen zion, baina bera ez zuen sekula zigortu. 9 urterekin baserriko lanetan aritzen zen.

4. Gerra aurreko bizimodu ona

- **Erref:** DON-056/005
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:07:07. **Bukatu:** 00:08:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Gerra hasi arte (ama hil arte) oso ondo bizi ziren. Donostiara joaten ziren bi autobus zeuden. Amari itxoiten egoten ziren, ogi koskorra kentzeko. Gerra etorri zenean ez zuten gehiago ogi zuririk jan.

5. Inguruko errepide eta herri-lurrak

- **Erref:** DON-056/007
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:08:25. **Bukatu:** 00:09:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

Errepidea noraino iristen zen lehen. Gerra denboran hobetu zuten. Ganaduari azpiak egiteko "zakarretara" joaten ziren, garoa biltzera.

6. Soldaduen material artean jolasean

- **Erref:** DON-056/008
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:09:46. **Bukatu:** 00:11:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra denboran bonba batek bizilagunen zelaian zuloa egin zuen. Soldaduek harrobian edukitzen zuten bolbora eta bestelako materiala. Umeak jolasean aritzen ziren han eta min hartutakoak ere izan ziren.

7. Umetako jolasak

- **Erref:** DON-056/009
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:11:49. **Bukatu:** 00:12:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Atun latei alanbrea lotu eta jolasean ibiltzen ziren errepidean. Neskek txingoan jolasten zuten. Erreketa jolasa. Itxuketan.

8. Gutxi batzuk zekiten igeri ondo egiten

- **Erref:** DON-056/010
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:12:42. **Bukatu:** 00:14:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- Fauna » Natura » Itsas fauna » Beste batzuk
- Itsasoa » Arrantza motak » Harraldeko arrantza

Laburpena:

Lapak hartzera osabarekin joaten ziren urtean bizpahiru aldiz. Baziren lanpernetan ibiltzen zirenak. Gutxi batzuk zekiten igeri ondo egiten.

9. Auzokoari udareak lapurtzen

- **Erref:** DON-056/013
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:16:19. **Bukatu:** 00:18:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Umetan auzoko bati udareak lapurtzen zizkioten siestan zegoen bitartean. Kilker bila ere ibiltzen ziren.

10. Eskolako maisu eta maistrak

- **Erref:** DON-056/014
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:18:05. **Bukatu:** 00:19:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Eskola non zegoen. Medikua ere ezagutu zuen beste eraikin batean. Behean botikina zegoen, lehen pisuan neskak, gorago mutilak eta azkenekoan guardaren etxea. Gerra ondoren etorri zen maisua gogorra zen. Aurretik maistra izandako 'Pakita Sorgin'.

11. Baserriko lanak, esnea eta barazkiak

- **Erref:** DON-056/016
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:20:15. **Bukatu:** 00:21:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Umetan baserriko lanak egin behar izaten zituen: goldean, segan, behiak jezten... Amak lehenik eta gero amaordekoak eramaten zuten esnea kalera. Barazkiak ez zituzten saltzen normalean, etxerako izaten ziren. Berdura asko izaten zuten inguruko baserriak. Animalientzako janak.

12. Inguruko errotak

- **Erref:** DON-056/017
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:21:59. **Bukatu:** 00:23:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Errotazar eta Igara errotak zituzten gertu, baina gero itxi egin zituzten eta Hernanira joaten ziren astoarekin. Aitak Tolosan idia erosi zuen eta handik oinez etorri ziren etxera. Astoarekin artoa eramaten zuten ehotzera, gero taloak egiteko. Garai batean ez zen libre errotara joatea eta kontrabandoan ibiltzen zen jendea.

13. Hernaniko errotaraino astoarekin

- **Erref:** DON-056/018
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:23:50. **Bukatu:** 00:26:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Umetan Hernaniko errotara joaten zen astoarekin artoa ehotzera. Auzoko

mutil bat behorrarekin joaten zen eta askotan elkarrekin egiten zuten bidea. Donostiara zioan autobusa "arbitroek" gelditu egiten zuten otarrak miatzeko, eta batzuetan salgaiak kendu ere bai. Behin irinik gabe bueltatu ziren eta berriro joan behar izan zuten Hernaniraino. 9 urte inguru izango zituen berak.

14. Gurpil-azalekin egindako abarkak

- **Erref:** DON-056/020
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:26:24. **Bukatu:** 00:27:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Abarkak gurpil-azalekin egiten ziren orduan. Batzuk txarrak izaten ziren eta min ematen zuten. Galtza motzekin ibiltzen ziren mutikotan, baita neguan ere.

15. Neguan txoriak harrapatzen

- **Erref:** DON-056/021
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:27:17. **Bukatu:** 00:30:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Natura » Fauna » Hegaztiak

Laburpena:

Neguan txoriak harrapatzen ibiltzen ziren. Santo Tomaseta Donostiara joaten ziren izebarengana eta hark erosten zizkien zepoak. Tranpak. Harrapatutako txoriak jan egiten zituzten.

16. Zozoak amuarekin harrapatu

- **Erref:** DON-056/022
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:30:29. **Bukatu:** 00:32:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Natura » Fauna » Hegaztiak

Laburpena:

Behin amuak ipini zituzten txoriak harrapatzeko eta 3 zozo ehizatu zituzten.

17. Hargin lanetan

- **Erref:** DON-056/027
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:34:32. **Bukatu:** 00:36:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Ondarretako kartzela eraisten lan egin zuen, 17 urte zituela. Dinamitarekin lehertzen zuten baina gehiena eskuz egiten zuten. Nagusiak 3 bazkide ziren. Uholdeek botatako pareta batekin ere aritu ziren.

18. Igeldoko harrobiak

- **Erref:** DON-056/030
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:40:09. **Bukatu:** 00:41:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Igeldoko harrobiak: Ezeizatarrek bi harrobi zituzten. Aiztoki. Tximistarri. Gorostidin hargorra ateratzen zen, kolore urdinekoa, espaloietako ertzak egiteko. Antonio harrobi bat baino gehiagotan ibili zen. Ezeizak desterak (zorroztarriak) egiten zituen eta Legazpira bidali. Haitzaundin ere egiten ziren desterak.

19. Harrobitik harria nola ateratzen zen

- **Erref:** DON-056/031
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:41:30. **Bukatu:** 00:45:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

Desterak (zorroztarriak) egiteko harri "itxua" erabiltzen zen, betarik gabekoa. Lehendabizi, harpikuarekin zuloak egin eta burdinazko ziriak sartzen zituzten. Ziriak 10 kiloko borrararekin kolpatzen zituzten harri zatia ebaki arte. Hori "harbera" edo harri bigunarekin egiten zen. Espaloien ertzak egiteko listoiak harri gogorra edo "hargorra", berriz, bolborarekin lehertuz ebakitzen zen. Harrobian harria ebaki ondoren, leundu egin behar izaten zen. Horretarako tresnak: punteroa, zizela, mutxarda...

20. Karobia eraikitzeke lanak harrobian

- **Erref:** DON-056/033
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:47:25. **Bukatu:** 00:48:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak

Laburpena:

Karobiak egiten ibili zen harrobian. Lizartzara eraman zituzten karobi horiek eta eskatutako epean lana amaitzeagatik nagusiak arkumeak eman zizkien.

Desterak egiten ere ibili zen eta gero Monte Igeldora joan zen lanera 24 urterekin.

21. Desterak Patricio Echeverríaarentzat

- **Erref:** DON-056/034
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:48:24. **Bukatu:** 00:49:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Goierriko lantegiak

Laburpena:

Tamaina desberdineko destera (zorroztarriak) egiten zituzten. Legazpiko Patricio Echeverría lantegira bidaltzen zituzten. 'Bellota' markako tresneria egiten zuten han.

22. Igeldoko jolas-parkean lanean

- **Erref:** DON-056/036
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:50:16. **Bukatu:** 00:53:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Zinema
- Lanbideak » Beste batzuk

Laburpena:

<p>Harrobitik Igeldoko jolas-parkera pasa zen lanera. Funikularreko txartelarekin zinemara eta dantzaldira joatea zegoen. Dotore jantzita joaten zen jendea. Beraiek lanean egoten ziren eta eskapadaxoa egiten zuten. Lehen lana funikularren mekanismoaren aldaketan izan zuen. Gero batez ere paretak egiten ibili zen. Udaran atrakzioetan lan egiten zuten. Bi enkargatu zeuden: obretakoa eta funikularrekoa. Funikularreko langileak trajearekin dotore jantzita ibiltzen ziren.</p>

23. Jolas-parkeko mantentze-lanak

- **Erref:** DON-056/038
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:55:56. **Bukatu:** 00:58:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Beste batzuk
- Aisia

Laburpena:

Igeldoko "Ibai misteriotsua" atrakzioan txalupen mekanismoa zaintzea zen bere lana. Atrakzioak ez dira asko aldatu. Errusiar mendia (gero Suitzarra izango zen) ere berdin dago. Garai hartan parke garrantzitsua zen. Mantentze-lanetan ibiltzen zen. Parkerainoko errepidea konpontzen ere aritzen ziren.

24. Errusiar mendiko lanak

- **Erref:** DON-056/039
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:58:32. **Bukatu:** 01:01:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Beste batzuk
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Errusiar mendiaren bidea egurrezkoa zen eta urtero zatiren bat konpondu behar izaten zen. Arotzak, igeltseroak eta elektrikariak. Lehengo arotzak erretiratu zirenean (izenak aipatzen ditu) berak egiten zituen errusiar mendiko lanak. Azkenean burdinazko bidea egin zioten.

25. Igeldoko atrakzioak

- **Erref:** DON-056/040
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 01:01:01. **Bukatu:** 01:03:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Basoko animaliak
- Aisia

Laburpena:

Igeldoko jolas-parkeko atrakzioak: Txalupak. Pottokak. Tximuak egoten ziren eta baita 'Ursula' izeneko hartz bat ere. Bartzelonara eraman zuten gero. Labirintoa. Ez da asko aldatu parkea, baina badaude lehen ez zeuden gauzak.

26. Monte Igeldoko zinemak

- **Erref:** DON-056/041
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 01:03:53. **Bukatu:** 01:04:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Igeldon bi zinema zeuden: goikoa eleganteagoa eta behekoa jende xumeagoarentzat.

27. Monte Igeldoko txurro-denda

- **Erref:** DON-056/044
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 01:06:46. **Bukatu:** 01:07:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak
- Aisia
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

30 pertsona inguruk egiten zuten lan Igeldoko jolas-parkean. Txurro-denda bazen, baina beraiek handiagoa egin zuten. Txurro-saltzaileak hondartzara jaisten ziren txurro eta barkilloak saltzera.

28. Bertsolariak eta antzerkia

- **Erref:** DON-056/045
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 01:07:36. **Bukatu:** 01:09:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

San Pedroak izaten ziren Igeldoko jaiak. Bertsolariak etortzen ziren. Berari ere gustatzen zitzaion bertsotan egitea, baina fama txarra zuten bertsolariek orduan. Antzerkia ere egiten zen euskaraz. Fabian Loidi apaiza bertsoak idazten ona zen eta lehen aldiz 13 urterekin hark idatzitakoak kantatu zituen. Gero bertso lehiaketa jarri zuten.

29. San Juanetan bertso-eskean

- **Erref:** DON-056/047
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 01:11:32. **Bukatu:** 01:13:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

Aita zen bertsozalea; San Juanetan eskean ateratzen ziren kuadrillan, baserriz-baserri. Zeintzuk ibiltzen ziren. Kanpotik etorritako bertsolariak.

30. Korrika apustua irabazi zuen

- **Erref:** DON-056/048
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 01:13:43. **Bukatu:** 01:14:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Korrika apustua egin zuen herritar batekin eta irabazi egin zuen, nahiz eta besteak fama handia zuen.

31. Idiekin eta zaldiekin deman

- **Erref:** DON-056/050
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 01:15:37. **Bukatu:** 01:16:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Idiekin eta zaldiekin deman ibilia da. Ikusleek egiten zituzten apustuak baina parte-hartzaileek normalean ez; saria irabazten zuten.

32. Inguruko dantzaldiak

- **Erref:** DON-056/052
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 01:18:18. **Bukatu:** 01:21:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Festetan soinujoleak izaten ziren. Neska-laguntzea. Orioko Bentan ere egiten zen dantzaldia. Bidea txarra zen, lokatzez betea. 'Sakabi' soinujole famatua etortzen zen. Dantza lotua han libre zen, Igeldon ez. Orduan dena bekatua zen, garai txarrean jaio ziren. Alejandro Alberdi txistularia.

33. Apaizaren zigorra, dantza lotua egiteagatik

- **Erref:** DON-056/053
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 01:21:49. **Bukatu:** 01:22:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Apaiza egoten zen zelatan, dantza lotua egiten ote zuten. 'Venta Alegre' etxeko aitona soinua jotzen aritzen zen balkoian. Mundu Gerrako soldadu alemaniarrek etortzen ziren Frantziatik eta hemengo neskekin dantza lotuan ibiltzen ziren. Apaizak aldarean belauniko jarri zituen neskak, liburuak eskuan zituztela zigortuta.

34. Praxku, txerri-hiltzailea

- **Erref:** DON-056/057
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 01:25:07. **Bukatu:** 01:26:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Urtean txerri bat edo bi hiltzen zituzten. Herrian zeuden txerri-hiltzaileak joaten ziren zeregin horretara. Praxku zen horietako bat. Hari buruzkoak.

35. Hiletetako ohiturak

- **Erref:** DON-056/058
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 01:26:36. **Bukatu:** 01:28:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Hildakoak etxetik eramaten ziren bizkarrean hartuta hilerrira. Senideak beltzez janzen ziren. Lutoa pare bat urtean eramaten zen. Argizaiolak pizten zituzten elizan eta opilak eta txerrimunik eraman apaizarentzat. Txerrimunik zer den.

36. Baserriz-baserri kantuz eskean

- **Erref:** DON-056/059
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 01:28:49. **Bukatu:** 01:31:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

Santa Isabeletan oilasko biltzea egiten zuten. Soinuarekin joaten ziren baserriz-baserri dantza eginez. San Juanetan eta gabon-eskean ibilia da bertso zaharrak kantatuz. Zati batzuk abesten ditu.

37. Musa gustuko

- **Erref:** DON-056/062
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:32:05. **Bukatu:** 01:33:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

Musean jokatzeari gustuko du eta hainbat txapelketa irabazi izan ditu. Berandu ikasi zuen. Bere bikotea zein zen.

38. Bizikleta, motoa eta autoa

- **Erref:** DON-056/064
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 01:34:30. **Bukatu:** 01:37:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

Lehendabizi oinez ibiltzen zen batetik bestera. Gero anaiaren bizikleta zaharra hartu zuen. Ondoren lehengusuaren motoarekin ibiltzen zen. Lankide batek Balentziaga jostunaren kotxea erabiltzen zuen eta harekin pixka bat ikasia zuen gidatzen. Gidabaimena lortu zuen egun berean kotxea erosi eta gidatzen itzuli zen etxera.

39. Saltzaileak baserriz-baserri

- **Erref:** DON-056/065
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 01:37:03. **Bukatu:** 01:38:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Gregorio Santamartak ipini zuen lehen denda Igeldon. Astoarekin banaketak ere egiten zituen. Traperoak eta latorrigileak (hojalatero).

40. Monte Igeldoko ura

- **Erref:** DON-056/066
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 01:38:34. **Bukatu:** 01:40:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Sukaldean ekonomia zeukaten. Monte Igeldoko ura zeukaten etxean. Ur-biltegia eraikitzen zebiltzan soldaduskara joan zenean. Monte Igeldoko ura ze etxetan jasotzen zuten.

41. Garbitokian arropa garbitzen

- **Erref:** DON-056/067

- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 01:40:11. **Bukatu:** 01:41:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Etxe ondoan zeukaten arropa garbitzeko lekua. Inguruko emakumeak hara joaten ziren, arropa garbitu eta kaleko jendearen gobara egitera. Astoarekin garraiatzen zituzten fardelak.

42. Txerria erretzeko garo-sortak

- **Erref:** DON-056/068
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 01:41:52. **Bukatu:** 01:42:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

Emakumeak txerria erretzeko garo-sortekin joaten ziren hiltegraino. Batzuk gariarekin egiten zuten baina Igeldon ez zen gari-sail askorik.

43. Sagardoa Igeldon

- **Erref:** DON-056/070
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 01:43:21. **Bukatu:** 01:45:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Baserría » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- Baserría » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Sagastia zeukaten eta umetan sagarrak ekartzen zituzten handik. Inguruko dolareak non zeuden. Pitarra eta zizarra zer diren. Sagardotegiak non zeuden.

44. Umetan ezagutu zuen artzaina: Esteban Bengoetxea 'Antzira'

- **Erref:** DON-056/072
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 01:47:16. **Bukatu:** 01:50:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Umetan ezagutu zuen artzainaren istorioa kontatzen du. Ganaduari azpiak

egiteko "zakarretara" joaten ziren, garoa biltzera, eta han edukitzen zituen ardiak artzain horrek. Behiak ere bazituen, baina horiekin beldurtu egiten ziren. Behin artzainak zuhaitz bat botatzeko laguntza eskatu zion bere aitari eta zauritu egin zen. Etxera lagundu zioten, Antzira baserrira. Berak 4 urte zituen orduan, eta 5 urte bete zituen egunean hil zen artzain hura. Bertso zaharren liburu batean topatu zuen gero.

45. 'Antzira'-k Txirritari botatako bertsoak

- **Erref:** DON-056/074
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:51:17. **Bukatu:** 01:52:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Esteban Bengoetxea 'Antzira' artzaina umetan ezagutu zuen. Behin Arburu baserrian laia-apustua egin zuten. Bertan 'Antzira'-k Txirritari botatako bertsoak kantatzen ditu.

46. San Juanetako koplak

- **Erref:** DON-056/076
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 01:54:19. **Bukatu:** 01:54:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

Bertso zaharren liburutik San Juanetako koplak batzuk kantatzen ditu.

47. Gustuko bertsolariak

- **Erref:** DON-056/078
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 01:57:03. **Bukatu:** 01:58:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bertsokera zaharra gustatzen zaio. Uztapide eta Lasarte ditu gustukoen.

48. Korrika apustuak

- **Erref:** DON-056/079
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 01:58:08. **Bukatu:** 01:59:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Korrika apustuak ikustea gustatzen zitzaion. Plazari bueltaka egiten ziren. 'Txikito Arruiz' nafarra oso ona zen. Igandetan izaten zuten apustuak.

49. Arruiz-Aldaz korrika apustua

- **Erref:** DON-056/080
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 01:59:47. **Bukatu:** 02:02:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

'Txikito Arruiz' nafarra oso korrikalari ona zen. Aldazen aurka egindako apustu baten kontakizuna. Arruizek Aldazi buelta erdiko bentaja eman arren, irabazi egin zuen. Tolosako zezen-plazan izan zen; leporaino bete zen.

50. Oilarra makilaz hil zueneko

- **Erref:** DON-063/002
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:02:20. **Bukatu:** 00:04:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Euren oiloak eta Bordaberrikoak, ondoko baserrikoak, beti nahastean ibiltzen ziren. Oilo talde bakoitzak bere oilarra izaten zuen eta hauek borrokan aritzen ziren. Antoniok behin makila txiki bat hartu eta etxeko oilarra hil zuen. Hasieran pentsatu zuen etxean errieta egingo ziotela, baina ez zen hala izan.

Transkripzioa

Oain kontatuko dizut ume-umetako kontua, jostaketan, baiño oker txiki bat nola in nun. Gu Kamiyokuak ta bestiak Bordaberrikuak. Oilluak alkarreana juntatzen zian, baiño oillo talde bakoitzak bere oillarra izaten zun. Eta, juntatzen zianian, oilluak-eta alkarrekin ondo ibiltzen zian, baiño oillarrak hasarratu iten zian. Oillarrak borrokan saiua iten zuen. Ta zeinētan zeon haundiña o helduna o, jeneralian nagusi ateatzen zan. Ta askotan ikusten giñun hala. Ta tontorrek eta danak odoletan jarrita, saiua iten zuen. Ta batian, nik ez dakit ba ze izango nitun laun bat urte o, arten oso umia nitzala behintzat, oillar hoik borroka saiua in zuen. Ta nik “hi beti borrokan” ta makilla txiki bat hartu eskun ta Bordaberrikuak, auzokuak, alde in zun ta etxeuai segika “Jo ingo zaitut” eta ni makilla ttikiakin segika. Hua´re borrokan-ta nekatua zeon nunbait. Oillar haundiya, e! [Nik hainbeste ...].

Borrokan. Ta azkenian, segika nabillela, hola gelditu zan ta makilla txiki horrekin jo nun burun ta “plast!” oillar hoi hankaz gora, seko gelditu. “Oaintxe in dit earra!”. Aita zana hementxe ai zan jatena ebakitzen, behientzako belarra ebakitzen, berdia. “Oain in dek earra” amonak. Ama kalera juna zan, Donostia juna. [Eguartia] zan. “Oain in dek earra! Jun ai aittena”. [...] hartu lepotik zintzilik oillar hoi, oillarra izango zan 4-5 kilo o, ez dakit nik. Ni umia ta ezin, arrastaka, nolabait ekarri nun honea. [...] ez nintzan etorriko aitag propina emango zian bildurak eo. Ta behintzat etorri nintzan ta aitag´e ondo hartu! Nunbait kazuelako ondo etorriko zala pentsatuko zun nunbait. Ta “Segi, segi, segi, eaman zak etxea! Hoi baiño oker haundiyo ez badek iten ondo izango haiz ta”, aitag hori esan zian. Ta nik bildurra nun. Amana banakin ez ziana zeaik ingo, baiño aitana bildur pixkat bai. Ta aitag hori esan zian: “Segi zak, eaman zak etxea. Hoi baiño oker haundiyo ez badek iten ondo izango haiz ta”. Etxeakuan errexo eaman nun, e, honutza etorri nintzan baiño. Poz harekin.

51. Ama Donostian etxez etxe esnea saltzen

- **Erref:** DON-063/003
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:04:33. **Bukatu:** 00:05:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Ama Donostiara joaten zen esnea partitzera etxez etxe. Orioko partetik ere batzuk joaten ziren Donostiara. Barazki gutxi izaten zen garai hartan eta esnea baino ez zuen eramaten.</p>

Transkripzioa

- Eta ama nora jutun zan? Esnia partitzera?
- Esniak eamatea Donostia, bai. Ordun jutun zian, autobusa ibiltzen zan, baiño autobusa aberitzen bazan astuakin-ta jutun zian. Ta ama Donostia jutun zan. Ta etortzen zian, ba, ordubata aldian edo, bueltan. Goizian zortziak aldian jaitsi.
- Etxez etxe ibiltzen zan?
- Kaliaz hala ibiltzen zian, e! Etxez etxe partitzen [zituen] esniak.
- Antigua ala...?
- Ez, Donostia jutun zian.
- Bazian bakarren batzuk Antiguora jutun zianaka´e, hemen astuakin, hemen Zapaterikua ta jutun zian Antigua´re. Baiño gehiyena Donostiaño jutun zian. Ta urrutitik etortzen zian hemen, e! Orioko partetik-eta bazian etortzen zianak. Arrilagatik eta, hor, Oriyotik. Arburukuak eta.
- Esniakin. Eta berdura-eta ere bai?
- Berdurik garai hartan berdura gutxi. Hementxe, lehen esan detena, aiten-ta... hor, Txokolatenekuak. Aitag-eta ibiltzen zuen berdura han ta han geo´re Martutenetik etorri zian hoik Txokolatenea horrea. Ta hoik berdura hoik ibiltzen zuen asko. Berdura. Baiño, gaiñontzian, berdura gutxi zan. Bestia gure andrian-ta gurasuak bestia berdura asko iten zuenak. Bekoetxeberri edo, hortxe aurrekaldian behian zan basarriya. Ta haik´e asko iten zuen berdura. Baiña hemen ez zan gaiñantzian berdurik ordun. Hemen orduko berdurak zian koniflorak, azak, porruk ta gaiñontzian gauza gutxi.
- Eta etxerako normalian, ez?
- Bai, etxeako. Ez zan ordun.

- Eta patata?
- Patata ta hoik bai. Artua ta babarruna ta hoik bai. Patata ta artua ta babarruna.

52. Oiloak libre ibiltzen ziren

- **Erref:** DON-063/004
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:05:57. **Bukatu:** 00:07:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Oiloek artua ematen zieten jateko. Orduan oiloek ez zituzten urte guztian jartzen arrautzak; udala aldean geldialdia egiten zuten. Libre egoten ziren zizareak edo belarra janez. Oilarrak goizean goiz hasten ziren kantari. Arrautzak egiteko toki jakinak zituzten etxean, baina noizean behin etxetik kanpo ere egiten zituzten. Txitak udaberrian ateratzen ziren.</p>

Transkripzioa

- Eta arbia eta... animalientzat zer jartzen zan?
- Animalientzat?
- Bai, artua ta...?
- Ba, animalientzat bai. Txarrientzat bai ta oilluentzat. Oilluak artua. Urte guztin artua jaten zun oilluak. Ta arrautzak´e bai arrautza onak e, artua janda.
- Bai, e?
- Oain urte guztin... Arrautza oain urte guztin iten due oilluak, baiño ordun ez, e! Ordun primabera izaten zan oilluak arrautza iteko. Karnabaletan ta hola.
- Eta bestela ez, e?
- Geo behin uda ezkeo, oilluak ya detenida iten zun, geldituta egoten zan in be ta geo ostea hasten zan baiño... Bai.
- Eta libre ibiltzen zian?
- Libre, libre. Artua atarin botatzen ziñon artua, jaten zuen ta jun ta... Gero belarra o txitxariak o janda ibiltzen zian ta geo berriz etorri ta jan ta... Oillua goizo esnatzen da gaiñea, e! Illuntzean goiz erretiratu ta goizian goiz jeiki oilluak. Ta oillarra bai kantari goizian goiz asko! Behin o behin tabernatik o hola berandu xamar, nesketa junda eo, etortzeakuan eo, etxera sarreran igual oillarra kukurruka.
- Eta arrautzak nun jarri...
- Ba! Izaten zituen etxian, hola, toki jakiñak.
- Bai, beti toki...
- Bai, bai. Izaten zian kanpuan iten zituenak e!
- Eta orduan argi ibili bihar!
- Bai, ta, zea, "kolkatu" ez dakit nola... entenditzen dezun "kolka" ze izaten zan. Oillua zeatzen zanian. Arrautzak, konparazio bateako, etxetik kanpoa in. Hor badao... hau ordun... baso txiki hoi /txikiyoi/ "txara" esaten giñon horri, hor daon hoi. Eta hoi da beheko basarri hortakua. Beno, oan [Anozen villa] dao oan hor. Hoi [Maradita] basarri hoi /basarriyoi/ zan, Joxe Mari [...]. Ta horrena da hoi. Ta oilluak jun horrea ta kabia in bertan. Oillua falta, baiño ez jakin. Txitok atea ta etorri izango zan txituakin etxera oillua hortik, txara hortatik. Bai. Bere txituak ditula, oillua etxera.
- Orduan asko ikusiko zian txituak eta oilluak libre eta...

- Orduan ez zan kanpotik oilloik-eta ekartzen, etxian ateatzan zian txituak. Kolka jarri ta. Primabera izaten zan txituak ateatzeko ´re e.

53. Abereak arreske; "estaltzera" nora eramaten ziren

- **Erref:** DON-063/005
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:07:58. **Bukatu:** 00:11:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Txerriak umea izandakoan adi egoten ziren, lehen egunetan amak umea zapaldu edo jan dezake eta. Abere bakoitza berotzen denean nola esaten zaion azaltzen du: behiak susara, abereak iel, txerriak irausi, ardiak arkera, txakurrak altan. Txerri emea "apotia"rengana, txerri arrarengana, eramaten zuten Amezketaborda baserrira. Behiak ere horrela eramaten ziren zezenengana.

54. Umetako jostaketak

- **Erref:** DON-063/006
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:11:17. **Bukatu:** 00:12:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jostaketak aipatzen ditu: "atxiketak", "erreketan", "partiketan"... "Partiketan" pilota botatzen izaten zen eta bazuen bere esaera ere.

55. Gudamendin pilotan

- **Erref:** DON-063/007
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:12:32. **Bukatu:** 00:13:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Antonio txarra omen zen pilotan, baina asko aritzen ziren horretan. Gudamendin pilotan aritzeko frontoi ona zegoen.

56. Igeldoko harrobiak

- **Erref:** DON-063/009
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:14:32. **Bukatu:** 00:15:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Igeldon harrobi asko zeuden. Harri-mota desberdinak zeuden.

57. Harrobiko harriak idiekin garraiatu

- **Erref:** DON-063/010
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:15:54. **Bukatu:** 00:17:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Inguruko harrobi bateko jabeak Altzako idi pare bat ekarri zuen harria garraiatzeko. Idiak Arburu baserrian jarri zituzten eta idiekin etorritako 'Londres' ezizeneko 'Buenavista' jatetxean egon zen apopilo. Antoniok, 10 urte ingururekin, askotan behiekin "punta egiten" zien 'Londres'en idiei. "Punta egitea" zer den azaltzen du.

58. Londres baserrikoaren pasadizoa Guardia Zibilarekin

- **Erref:** DON-063/011
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:17:33. **Bukatu:** 00:19:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

'Londres' ezizeneko Altzako gizon bat ibiltzen zen idiekin harrobiko harriak garraiatzen. Ezizena baserriaren izenetik datorkio, eta ondoko baserri batek 'Paris' omen dauka izena. Baserrien izenak direla-eta Guardia Zibilarekin izandako pasadizoa kontatzen du Antoniok. Guardia Zibilaren kontrolak sarri egoten ziren errepidean, nahiz eta auto askorik ez ibili.

59. Hernani aldera astoarekin irinetara

- **Erref:** DON-063/012
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:19:45. **Bukatu:** 00:20:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Errotazar izeneko errotara joaten ziren, baina hura itxi zenean Hernani aldera joaten ziren astoz irin bila. Etxera bidean, errepidean, bakoitzak zeraman jeneroa begiratzen zieten eta proportzioan zerbait kendu.

60. Errotatik bueltan irin-zakuaren gainean

- **Erref:** DON-063/014

- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:22:10. **Bukatu:** 00:22:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Errota
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Behin lagun bat eta biak joan ziren Hernanira irinetara. Bera astoarekin eta laguna behorreakin. Haranzkoan ezin izan zen asto gaineen joan ipurdia urratuta zuelako, baina bueltan ederki etorri zen irin-zakuaren gaineen.

61. Gose-denboran artoa erreta

- **Erref:** DON-063/015
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:22:55. **Bukatu:** 00:24:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Artoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Artoa taloa eginda jaten zen. Bestela, egosi eta morokila jaten zuten esnearekin. Gose-denboran artoa erreta ere jan izan zuen.

62. Etxean sagarrik ez eta Ganboa baserrira sagardoa egitera

- **Erref:** DON-063/016
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:24:20. **Bukatu:** 00:27:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Sagardoa etxerako egiten zen. Bera umea zela etxean sagarrik ez eta Ganboa baserrira joan ziren. Han dolarea zuten. Sagarra jo eta sagardoa nola egin zuten azaltzen du. Geratzen zen patsari ura bota eta pitarra egiten zen. Sagardoa festa handietarako izaten zen. Artean idirik ez zuten eta behiekin barrikan ekartzen zuten etxera sagardoa.

63. Sagarra kanpotik ekarri behar; sagar-klaseak

- **Erref:** DON-063/017
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:27:27. **Bukatu:** 00:28:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Orio inguruko Arrillaga baserritik ere ekarri zituzten behin sagarrak behiekin.

Gero berak eraman omen zituen bueltan astoan zaku hutsak. Sagardotarako geza-mina zen sagar-klase ona, sagar mikatza. Etxean bazituzten jateko sagarrak ere, udare-sagarra, esaterako.

64. Oherakoan errezoak eta arrosarioa egunero

- **Erref:** DON-063/018
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:28:34. **Bukatu:** 00:30:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

<p>Gutxi joan zen eskolara eta ez omen zuen ezer ikasi. Dotrina anaiarekin ikasten zuen, etxean. Gauean errezatu egiten zuten oherakoan eta oraindik ere ohiturari eusten dio. Lehen arrosarioa egunero errezatzen zen; berdin zen lanean egon zein geldirik, denek errezatzen zuten.</p>

65. Arto-zuriketa egin, gaztainak jan eta bertso-zaharrak kantatu

- **Erref:** DON-063/019
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:30:25. **Bukatu:** 00:31:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Arto-zuriketa zenean, gauean osaba etortzen zen laguntzera. Afalostean batzuk ukuiluko lanak egitera eta besteak artoak zuritzera. Lanak bukatutakoan gaztainak jan eta, umoreko bazegoen, aita bertso zaharrak kantatzen zituen.

66. San Juan eskean baimenik gabe irtetearren isuna

- **Erref:** DON-063/020
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:31:05. **Bukatu:** 00:32:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Aita San Juan eskean ibiltzen zen. Mutilak bakarrik ibiltzen ziren orduan. Behin irten zen bera eskean, baina baimenik gabe irten zirelako isuna jarri zien apaizak. Ogerleko bat ordaindu behar izan zuten.</p>

67. Aratusteetan etxerik etxe eskean

- **Erref:** DON-063/021
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:32:40. **Bukatu:** 00:34:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:

Aratustetan soinuarekin irteten hasi ziren etxerik etxe eskean. Dantza egiten zuten etxe bakoitzean. Arrautzak eta dirua jasotzen zuten. Bildutakoarekin bazkaria egiten zuten eguerdian.

68. Lehenbizi ttunttuna eta gero soinu-txikia; inguruko soinujoleak

- **Erref:** DON-063/022
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:34:00. **Bukatu:** 00:36:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Bera umea zela Alejandro Alberdi txistulariak jotzen zuen plazan arratsaldeetan. Gero Ibaetako Txomin Eskarmendi hasi zen soinu txikiarekin; 3-4 orduz jotzen zuen plazan. Gero Jose Luis Etxebeste ere ibili zen soinuarekin eta baita anaia ere. Benito Zinkunegik ere urte asko egin omen zituen eta Tomas Olasagasti Antiguakoa ere etortzen omen zen. "Azpeiti".

69. Igeldoko bertsolariak eskean: Martikorena, Iraola eta Zendoia

- **Erref:** DON-063/023
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:36:05. **Bukatu:** 00:37:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Hasieran bertako bertsolariak ibiltzen ziren eskean: Tomas Martikorena, Bernardo Iraola eta bere aita, Jose Ramon Zendoia. 2-3 kuadrilla ibiltzen ziren. Joxe Juan Erauntzetamurgil ere ibili zen zenbait urtez. Bertakoek utzi zutenean kanpokoak hasi ziren: Mitxelena, Garmendia, Zeberio... Baina kanpokoek ezin izaten zuten hain ongi egin eskean, etxe bakoitzeko kontuen berri ez zekitelako.</p>

70. Idi-parearekin harrobiko harria garraiatzen

- **Erref:** DON-063/026
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:38:15. **Bukatu:** 00:40:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Inguruko baserritar batzuei laguntzen ibiltzen zen idiekin harrobiko harriak ateratzen eta haiek utzi zutenean eurak hasi ziren. Eurak idi-pare batekin eta Benantzio Martikorena beste pare batekin. Harri asko ateratzen zen orduan. Bakoitza bere karroarekin ibiltzen ziren, baina harri handia zenean elkarri lagunduta. Harria bide bazterrean uzten zuten gero kamioia kargatzeko. Hilerri ondoan zegoen Altuna lantegira eramaten zuten harri gehiena. Artzain Ona Katedrala Igeldoko harriarekin eginga dela esaten omen dute. Bere aita behin Getariaraino joan zen idiekin harria eramatera.

71. Garai baten 4 kofradia Igeldon

- **Erref:** DON-063/028
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:41:18. **Bukatu:** 00:43:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Garai baten 4 kofradia ziren Igeldon: San Jose, San Anton, Santa Luzia eta San Isidro. Bakoitzak bere egun ospatzen zuen bazkaria eginda. Kofradia bakoitzeko arduradunak nortzuk ziren.

72. Harrobian egin zituen lehenbiziko lanak

- **Erref:** DON-063/029
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:43:00. **Bukatu:** 00:43:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Bera harrobian lanean hasi zenerako jadanik ez zen lehen beste harri ateratzen. Bere lehenbiziko lana Ondarretako kartzela botatzen izan zen. Hura bukatu ostean berriz deitu zioten Antiguana erreka bazterreko horma erori egin zelako.

73. Basoak garbitzen segarekin

- **Erref:** DON-063/030
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:43:55. **Bukatu:** 00:45:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Garai baten segarekin basoa garbitzen jardun zuen lanean, baina aspertu egin zen bera bakarrik. Gero inguruetara basoak garbitzera etorri ziren batzuekin

ibili zen. Jose, nagusia, Lezokoa zen. Diputazioko basozaina, Gurrutxaga, egoten zen zaintzen.

74. Gorostidi harrobian harri urdinkara gogorra

- **Erref:** DON-063/031
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:45:40. **Bukatu:** 00:47:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Basoko lana bukatu zitzaionean harrobian lana eskatu zuen eta Aiztoki harrobian hasi zen. Jose Arrillaga, Jose Uranga eta Tomas Martikorena ziren nagusiak. Ordurako Aiztokin lana gutxituta zegoen. Bi taldetan lan egiten zuten: eurak Aiztokin eta besteak Gorostidi harrobian. Han zintarriak egiteko harri urdinkara gogorra ateratzen zuten. "Hargogorra" deitzen zioten. Harria nola ateratzen zuten.

75. Denboraleak Kontxan egindako kalteak konpontzera

- **Erref:** DON-063/032
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:47:50. **Bukatu:** 00:49:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Harrobian lana gutxitu zitzaienean Kontxara joan ziren harrobiko langileak, denboraleak egindako kalteak konpontzera. La Perlako eskailerak eta hondartzarako aldapa apurtu ziren, besteak beste, eta udarako konpondu egin behar. Presaka, eta marearen gorabeherak zainduz, 24 orduko lan-egunak ere izan zituen inoiz.

76. Mutikotan "Tiro pichón"-ean lanean

- **Erref:** DON-063/033
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:49:40. **Bukatu:** 00:51:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

12 urte ingururekin "Tiro pichón"-era joaten hasi zen lanera. Abuztu erdialdetik irailaren hasierara izaten zen uso "tirada". Sarearen kanpoaldera erortzen ziren usoak jasotzea izaten zen euren lana. Beste batzuk praka zuriak, alkandora zuria eta gerriko eta txapel gorriarekin goian ibiltzen ziren korrika, goiko usoak jasotzen.

77. Uso-tiraketan diru asko jokatzeko

- **Erref:** DON-063/034
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:51:25. **Bukatu:** 00:52:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Kanpotik etortzen zen jendea uso-tiraketara. Eibartik Bittor Sarasketa etortzen zen, esaterako. Etortzen zen pertsonaia famatuena: Tebako kondea. Sari handiak egoten omen ziren eta diru asko jokatzeko, gainera. Riscal-go markesak jartzen omen zuen saririk handiena.

78. "Tiro pichón"-ean lanean zeregin ezberdinetan

- **Erref:** DON-063/035
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:52:54. **Bukatu:** 00:55:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Lehenbiziko urtean saretik kanpora erortzen ziren usoak jasotzen lan egin zuen "Tiro pichón"-ean. Gero, gora joateko eskaintza egin zioten, korrikalari gisa, goian erortzen ziren usoak jasotzera. Han gehiago irabazten zen. Korrikalarien janzkera: praka eta alkandora zuriak eta gerriko eta txapel gorriak. Handik uso karioletan lan egitera pasa zen. Urtero joaten zen lanera eta hainbat urtez jardun zuen. Hasieran zelai bakarra zegoen, baina gero 3 jarri zituzten. Diru asko uzten zuen inguruetan "Tiro pichón"-ak.

79. Ia kotxerik ez eta bizikletak ere gutxi igeldon

- **Erref:** DON-063/037
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:57:30. **Bukatu:** 00:58:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Igeldon atzeratuta bizi direla dio. Donostia izateko pobrea omen zen. Autobusa zegoen Igeldora. Kotxe bakarra Inaxio Olidenena zen. Gero maisuak ere erabili omen zuen. Bizikletak ere gutxi ziren orduan.

80. Soldadutzan 3 hilabeteko oporrak baserritarrei

- **Erref:** DON-063/038
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:58:00. **Bukatu:** 01:00:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Soldaduskako instrukzioak egitera Orio eta Zarautz bitartera joaten zen, oinez, bi ordu inguruko bidean. Astelehen goizean joan eta larunbatean itzuli. Irunen egin zuen soldadutza. Baserritarrei 3 hilabeteko oporrak eman zizkieten udaran. Mandoarekin ibiltzen zen, txerriei jana eraman eta bueltan patata ekartzen.

81. Donostiara tenientearekin, zaldia zaintzera

- **Erref:** DON-063/039
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 01:00:05. **Bukatu:** 01:02:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Soldadutzan zaldiei ferrak jartzen laguntzen ere ibiltzen zen. Teniente albaitariak esku ona zuela ikusi zuen nonbait eta berarekin Donostiara etortzea eskaini zion. Hala etorri zen, zaldi gainean, Loiolako kuarterera. Zaldia zaintzea zen bere lana, eta lotara etxera joateko aukera zuen. 10 egun egin zituen.

82. Tenientearen zaldiarekin hipikara

- **Erref:** DON-063/041
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 01:05:00. **Bukatu:** 01:06:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Tenientearen zaldia hipikara eraman behar izaten zuen, saltoak egitera. Goizez joanez gero, arratsaldea jai izaten zuen normalean. Hala ere, tenienteak agindutakoan joan behar izaten zuen, baita igandetan ere, nahiz eta amorrazioa eman. Behin tenientea muturrez aurrera erori zen eta madarikazioa bota ote zion galdetu zion Antoniori.

83. Euskarazko antzerkiak Igeldoko pentsu-biltegian

- **Erref:** DON-063/043
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 01:07:04. **Bukatu:** 01:08:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Berak jaunartzea egin zuenean on Migel zen apaiza. Hura hil zenean, berak 13 urte zituela, on Fabian etorri zen. Pentsu-biltegian antzerkiak egiten zituzten berak 16 urte inguru zituenean. Euskarazko antzerki zaharrak izaten ziren. Erramun Balerdi eta Jose Ramon Etxebeste ziren buru ibiltzen zirenak.

84. Apaizaren zigorra dantza-lotua egiteagatik

- **Erref:** DON-063/046
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 01:09:30. **Bukatu:** 01:10:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

´Venta Alegre´ izeneko etxean soinu-jolea aritzen zen etxe aurreko plazan. Mundu Gerra hasita zegoen eta Frantziatik bueltan soldadu alemaniarrek etortzen ziren. Soldaduok hemengo neskekin dantza lotuan ibiltzen omen ziren. Apaizak zigorra jarri zien; neska bat belauniko jarri zuen elizan, liburuak eskuan zituela.

85. Kongregazio asko ziren: Apostoluak, Luistarrak, Mariaren alabak...

- **Erref:** DON-063/047
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 01:10:35. **Bukatu:** 01:12:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak

Laburpena:

Kongregazio asko omen ziren lehen. Luistarren aurretik Apostoluak izan ziren, zinta gorriarekin. On Fabianek jarri omen zuen Luistarren kongregazioa. Neskak ´Mariaren alabak´izaten ziren. Hilero jaunartzera joan behar izaten zuten. Luistarren kongregazioan sartu zirenean Zestoara joan ziren, hango Luistarren festara. Basarri eta Uztapide omen ziren bertsotan.

86. Igeldo inguruetako korrikalariak

- **Erref:** DON-063/048
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 01:12:18. **Bukatu:** 01:13:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Herriko festetan korrika lasterketak izaten ziren. Bera ere ibiltzen zen. Narxixo Lizarazu omen zen ona, Gipuzkoako txapeldunorde egina. Berak Igeldon

ezagutu zituen lehenengo korrikalariak Jose Azurza, Jose Antonio Mujika, Fernando Arrillaga eta Bordaberri baserriko Alejandro.

87. Idi-dema irabazteko plazak egin behar; "tertzero" lanak

- **Erref:** DON-063/051
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 01:16:12. **Bukatu:** 01:17:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Idiak ondo preparatu behar ziren idi-dema irabazteko. Ahalik eta plaza gehien egin behar dira irabazteko. Igeldoko plazak 24 metro ditu. Usurbilgo plaza omen da luzeena. "Tertzero" lanean ere ibilia da demetan, aldameneko marra zaintzen.

88. `Luxia´eta Garziarenaren arteko bi aizkora-jokoak Donostian I

- **Erref:** DON-063/054
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 01:19:05. **Bukatu:** 01:19:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Ikusi zuen lehenengo aizkora-apustua Martin Garziarena eta `Luxia´ren artekoa izan zen, Donostiako zezen-plazan. Bi apustu irabazi zizkion `Luxia´k Garziarenari eta hau erretiratu egin zen. "Luxia"k eta Luis Lopategi harri-jasotzaileak Eibarko Iturrinoren laguntza izan omen zuten preparatzeko.

89. `Luxia´eta Garziarenaren arteko bi aizkora-jokoak Donostian II

- **Erref:** DON-063/056
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:20:25. **Bukatu:** 01:22:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Donostiako zezen-plaza goraino beteta egon zen `Luxia´eta Garziarena aizkolarien arteko apustuan. Lehenbiziko apustuan erakustaileak tranpa egin ziola Garziarenari zabaldu zen eta berriz jokatu zuten, erakustailerik gabe. Baina bigarrena ere `Luxia´k irabazi. Gero Latasaren aurka jokatu zuen `Luxia´k eta galdu egin zuen. Orduko aizkolariak.

90. Hiletetako ohiturak

- **Erref:** DON-063/060
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 01:25:15. **Bukatu:** 01:26:20

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Maila desberdinetako hiletak egoten ziren. Elizan emakumeak eta gizonak aparte jartzen ziren: gizonaek aurrean, bankuetan, eta emakumeak atzean, aulkietan. Hiletetan argizaiola eramaten zen elizara; bakoitzak bere mahaitxoak izaten zuen. Emakumeek oihala eramaten zuten burua estaltzen.

91. Ogi bedeinkatuak eta txerriaren puska apaizarentzat

- **Erref:** DON-063/062
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 01:26:50. **Bukatu:** 01:28:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Blas
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

San Blasetan ogia eta haziak bedeinkatzen ziren elizan. Ogi zakukada gero apaizarentzat uzten zen. Txerria hiltzen zenean ere txerriaren 3 puska eta odolki bat ematen zitzaizkion apaizari.

92. Umea jaio eta hurrengo igandean atsolorra

- **Erref:** DON-063/063
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 01:28:38. **Bukatu:** 01:29:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak

Laburpena:

Umea jaioetakoan ahalik azkarren bataiatu egin behar izaten zen. Hurrengo igandean atsolorra egiten zuten emakumeek, umeari bisita eta afari-merienda.

93. Igeldoko jolas parkean lanean

- **Erref:** DON-063/066
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 01:32:20. **Bukatu:** 01:35:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ekonomia eta industria

Laburpena:

Bere aitzak Igeldoko jolas parkean lan egin izan zuen beti. "Río Misterioso"-n egiten zuen lan aitzak eta baita parkearen garbiketan ere. Berak ere antzera. Parkeko mantentze-lanak egiten zituen. Parkeko hargina jubilatu zenean, haren ordeaz sartu zen bera. Don Luis Pascual zen orduan nagusia. Gero haren semeak jarraitu zuen, eta orain alabek hartu dute ardura.

94. Bi zine Igeldon, maila sozialaren arabera

- **Erref:** DON-063/067
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 01:35:00. **Bukatu:** 01:36:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Ekonomia eta industria

Laburpena:

Funikularra beti antzera ezagutu du. Garai hartan, funikularreko txartelak zinerako edo dantzaldirako ere balio zuen. Beheko terrazan jende apalagoarentzako beste zine bat zegoen. Goiko zinera jendea dotore jantzita joaten zen. Bi musika-banda egoten ziren asteburuetan.

95. Osteguna, umeen eguna Igeldoko jolas-parkean

- **Erref:** DON-063/068
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 01:36:05. **Bukatu:** 01:37:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ekonomia eta industria

Laburpena:

Osteguna umeentzat eguna izaten zen. Globoak botatzen zituzten eta globoen atzetik korrika ibiltzen ziren ume guztiak.

96. Igeldoko parkeko eraikinak nola aldatu diren

- **Erref:** DON-063/069
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 01:37:10. **Bukatu:** 01:38:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ekonomia eta industria

Laburpena:

Bera Igeldoko parkean lanean hasi zenean jatetxe zaharrean izaten zen dantzaldia. Zine aretoaren lokala oraindik han omen dago, baina beste guztia bota egin omen zen hotela egiteko. Jatetxeko "etxekoandrea", Juanita.

97. Denetariko lanbideak egin behar: igeltsero, hargin...

- **Erref:** DON-063/074
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:41:45. **Bukatu:** 01:43:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak

Laburpena:

Lehen ez zegoen ezer Igeldon, eta bere garaian hasi zen jendea ofizioen bat ikasten. Igeltsero lanbidea peoi gisa hasita ikasten zen. Bera ere ibilia da peoi gisa lanean eta, hain zuzen ere, halaxe hasi zen gero hargin lanetan.

98. Harrobiko nagusien bisita operatu zutenean

- **Erref:** DON-063/076
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 01:44:30. **Bukatu:** 01:45:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Ultzeratik operatu zuena Manuel Cardenas mediku militarra izan zen. Harrobiko 3 nagusiak (Arrillaga, Uranga eta Martikorena) bisitan joan zitzaizkion eta bost durokoa jarri omen zioten burko azpian.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-09-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com